

## Journal Citations Report (JCR) eta Essential Science Indicators (ESI) baliabideen bertsio berriak

2016/05/04

Thomson Reutersek Journal Citation Report (JCR) eta Essential Science Indicator (ESI) tresnen bertsio berriak argitaratu ditu.

JCR, aipamenen analisi-tresna, eta ESI, ikerketaren etekina ezagutzeko web tresna, Web of Science plataformaren azterketa eta ebaluaketa baliabide nagusiak dira.

Azken aldaketen ostean Web of Science, JCR eta ESI baliabideen arteko nabigazioa arinagoa da eta WOS barruan dauden adierazleen informazioa integratu da.

Bertsio berri honekin Web of Science-n egindako bilaketan emaitzetan zuzen ikus daiteke aldizkariaren informazioa, hau da, ez da jada beharrezkoa JCR tresnara jotzea ondorengo informazioa lortzeko: aldizkariaren kuartila, eragin-faktorea, 5 urteko eragin-faktorea eta aldizkariaren postua kategoriatan tematikoaren barruan ematen da.

Horretaz gain orain Web of Science plataformatik ere aipamen asko eta aipamen gehien jaso dituzten dokumentuei buruzko informazioa lor daiteke, ESI barruan filtro berrien bidez markatuta izan direnak.

JCR eta ESI bertsio berrietarako sartzeko modua ere aldatu da, gaurtik aurrera egiaztagiriko pertsonala beharrezkoa izango baita: hain zuzen, WOS plataforma barruan erabiltzen den erabiltzaile pertsonala eta pasahitza, edo *Federation of Spain (FECYT)* aukeratuz 'Institutional users sign in' atalean.

Orain arte Web of Science plataforman erabiltzailerik ez bazenuen erabiltzaile berria sortu.

Informazio gehiago behar baduzu **argibide-bideoa** ikusi



JCR eta ESI bertsio berriak